

HAMAHIRUGARREN ORDENANTZA FISKALA

ZARAMA BILTZEKO ZERBITZUA ESKAINTZEAGATIKO TASA

I.- IZAERA ETA ARRAZOIA

1. Artikulua.- Bizkaia Lurralde Historikoko 5/89 Foru Arauak, ekainaren 30ekoak, horrek arautzen baititu Toki Ogasunak, emandako ahalmenak erabiliz, Udal honek, Zarama biltzeagatiko tasa ezartzen du, hori bestalde Ordenantza Fiskal honek arautuko du.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

2. Artikulua.-

1.- Tasari dagokion zergapeko egitatea dela ulertuko da, etxeko zaramaren eta hiri-hondakin solidoen bilketarako, horien derrigorrezko jasotzeari dagokion zerbitzua eskaintzea, hain zuzen etxebizitzetako, ostatuetakoa eta gainontzeko lokal edo establezimenduetako, horietan, jarduera industrial, merkataritzakoa, profesionala, artistikoa, zerbitzuei dagokiona, gizartekoa, kulturala, kirolekoa, edo planeamenduko urbanistikoa aurrikusita egon daitekeen beste edozein motatakoa, eta horrek ez dauka zerikusirik higiezinaren erabilera zehatzeko egokitzapenarekin edo udal arautegiarekin.

2.- Ondorio horietarako, etxeko zarama eta hiri-hondakin solidoak direla joko da, janarien edo detrituaren hondakin eta zaborrak, horiek etxebizitzen edo lokalen garbiketa arruntetik badatoz, eta kontzeptu horretatik kanpo geratzen dira hurrengo hondakinak, industrialak, obretako hondakinak, giza-detrituak, kontaminatutako gaiak eta materialak, korrosiboak eta arriskutsuak direnak, edo horien bilketa edo isurketa egiteko neurri higieniko, profilaktiko edo segurtasunekoak hartu behar direnean.

3.- Eskaintza borondatez eta alderdi batek eskatuta egiten denean ez dago tasari atxikia, baldin eta hurrengo zerbitzuetako bat bada:

- a) Ez etxebizitzetako eta ez urbano bezala kalifikatutako industri, ospitale eta laborategietako zaramaren eta hondakinen bilketa.
- b) Berokuntza zentraleko zabor eta errautsen bilketa
- c) Obretako hondakinen bilketa.

III- SUBJEKTU PASIBOAK

3. Artikulua.-

1.- Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, pertsona fisiko eta juridikoak eta Zergaren gaineko Foru Arauean agertzen diren Entitateak, baldin eta zerbitzua eskaintzen den plaza, kale, bide publiko eta tokietan kokatutako etxebizitza eta lokalak okupatu edo erabiltzen badituzte, okupatze hori izan daiteke bai jabetun bezala, bai usufruktudun, habitazionista edo maizter bezala, edo baita prekarioan ere.

2.- Etxebizitza edo lokalaren jabetunak zergadunaren ordezkari izango den subjektu pasiboaren izaera izango du, eta hark bere kasuan, ordaindutako kuotak erabiltzailearen gainean, zerbitzuaren onuradunen gainean, kargatu ahal izango ditu.

IV. ARDURADUNAK

4. Artikulua.-

1.- Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergaren gaineko Foru Arauak aipatutako pertsona fisiko eta juridikoek, subjektu pasiboek dituzten zerga-obligazioen gainean, solidarioki erantzungo dute.

2.- Ordezko erantzunkizuna izango dute, bai sozietateetako administratzaileek, bai sindikoek, bai porrotetako, sozietateetako eta orokorrean edozein entitateetako kontuhartzaile edo kitatzaileek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko Foru Arauean adierazitako kasuetan eta eskumenetan.

V. ZERGAREN KUOTA

5. artikulua

1.- Zerga-kuota kopuru finko baten (% 70) eta aldakor baten (% 30) batuketa izango da. Zenbateko horren barruan sartuko dira, hala badagokio, ezartzen diren HHSen zatien zerbitzuaren eta birziklapenaren kostuari lotutako kostuak, lokal-unitate bakoitzeko, higiezinaren izaeraren eta xedearen arabera zehaztuko dena, eta, hala badagokio, azaleraren eta langile-kopuruaren arabera.

Beraz, kuota honako hau izango da:

$$\text{TSRB} = \text{TFIXA} + (\text{TFO} + \text{TFE} + \text{TFR})$$

Non:

- TSRB zerbitzuaren kuota da
- TFIXA kuotaren zati finkoa da
- TFO zati organikoari dagokion zati aldakorra da
- TFE ontzien zatikiari dagokion zati aldakorra da
- TFR erreto-zatiari dagokion zati aldakorra da

6. Artikulua

1. Kuoten zati aldakorrean murrizketa bat aplikatu ahal izango zaie birziklatze-politiken arrakastan laguntzen duten subjektu pasiboek, politika horietan parte hartuz, sortzen dituzten hondakinen zatikiei dagokienez uzten dituzten hondakinen bolumenaren, pisuaren edo ehunekoaren arabera. Murrizketa hori kuoten % 10ekoa izango da Udalak ezarritako frakzio organikoa (FRO) birziklatzeko politikan aktiboki parte hartzen duten erabiltzaileentzat, horien atalasea FRO edukiontzia hilean 8 aldiz baino gehiagotan erabiltzean kokatzen baita.

2.- Ondorio horretarako, hurrengo hau aplikatuko da.

TARIFA-HIRUHILABETEKO KUOTA

1.- Etxebizitza bakoitzeko	23,00
JEZ-eko tarifen 1. Ataleko jarduerak:	
Janari, edari eta tabako produktuen txikizkako salmenta, hori establezimendu iraunkorretan egiten denean. (ag 64). Janari alorreko merkataritza (ag.67) Ostalaritza alorreko merkataritza (ag.68) Hezkuntza eta ikerketa zerbitzua (ag 93) Osasun eta Albaitaritza zerbitzua (ag 94) Kultura eta Astialdiko zerbitzuak (ag.96)	
2.1.- Aurretik adierazitako lokalak, 10 m2 baino azalera txikiagokoak	29,00
2.2.- Aurretik adierazitako lokalak, 10 eta 15 m2 arteko azalerakoak	48,00
2.3.- Aurretik adierazitako lokalak, 50,1 eta 100 m2 arteko azalerakoak, %25eko gainkargua.	60,00
2.4.- Aurretik adierazitako lokalak, 100.1 eta 200 m2 arteko azalerakoak, %50eko gainkargua.	73,00
2.5.- Aurretik adierazitako lokalak, 200,1 eta 500 m2 arteko azalerakoak, %100eko gainkargua.	98,00
2.6.- Aurretik adierazitako lokalak, 500,1 eta 750 m2 arteko azalerakoak, %150eko gainkargua.	123,00
2.7.- Aurretik adierazitako lokalak, 750 m2 baino azalera handiagokoak, %200eko gainkargua.	149,00
2.8.- 20.000 m2 baino azalera handiagokoak	20.373,00
3.-JEZ-eko tarifen Lehen Ataleko jarduerak:	

Eraikuntza (5. Banaketa) Handizkako Merkataritza (Ag.61). Merkataritzako bitartekariak (ag 63) Janariak ez diren industria-produktuen txikizkako merkataritza, hori establezimendu iraunkorretan egiten denean (ag 65, hala ere 65110 eta 65340 epigrafeak kenduta). Garraio eta Komunikabideak (7. Banaketa). Finantza-erakundeak, Aseguruak, enpresei eskainitako Zerbitzuak, alogerak (8. Banaketa) Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza zerbitzuak (ag.91) Saneamendu, garbiketa eta antzeko zerbitzuak; suteen eta antzekoen aurkako zerbitzuak (ag.92). Gizarte laguntza eta zerbitzuak (ag.95) Zerbitzu Pertsonalak (ag.97). Ikuskizunekin zerikusia duten jolas-parkeak, barrakak eta beste zerbitzuak; Batzarren Antolaketa; azoka-barrutia edo –parkea (ag.98) Beste epigrafeetan sailkatu gabeko zerbitzuak (ag.99) J.E.Z.-ko tarifaren Bigarren Atalean barne sartutako jarduera profesionalak.	
3.1.- Aurretik adierazitako lokalak, 10 m2 baino azalera txikiagokoak	17,00
3.2.- Aurretik adierazitako lokalak, 10 eta 15 m2 arteko azalerakoak	29,00
3.3.- Aurretik adierazitako lokalak, 50,1 eta 100 m2 arteko azalerakoak, %25eko gainkargua.	36,00
3.4.- Aurretik adierazitako lokalak, 100.1 eta 200 m2 arteko azalerakoak, %50eko gainkargua.	43,00
3.5.- Aurretik adierazitako lokalak, 200,1 eta 500 m2 arteko azalerakoak, %100eko gainkargua.	58,00
3.6.- Aurretik adierazitako lokalak, 500,1 eta 750 m2 arteko azalerakoak, %150eko gainkargua.	72,00
3.7.- Aurretik adierazitako lokalak, 750 m2 baino azalera handiagokoak, %200eko gainkargua.	86,00
4.- J.E.Z.-ko Lehen Ataleko hurrengo jarduerak:	
Energia eta ura (1. Banaketa). Energetikoak ez diren mineralen erauzketa eta eraldaldaketa eta baita horietatik eratorritako produktuena ere, industria kimikoa (2. Banaketa). Metalak eraldatzeko industriak, zehaztazuneko mekanika (III. Banaketa). Manufakturako beste industriak (4. Banaketa). 4). Produktuen konponketa (ag. 62). Ehungintzako gai, etxerako jantzigintza, alfonbra eta antzeko eta tapizeriako gaien txikizkako merkataritza (65110 epigrafea). Eraikuntzako materialen eta saneamenduko mobiliarioaren txikizkako merkataritza (65340 epigrafea). Makineriaren konponketa (ag. 69).	
4.1.- Industriak, 5 langile arte	28,00
4.2.- Industriak, 6 eta 10 langile artean	47,00
4.3.- Industriak, 11 eta 25 langile artean	75,00
4.4.- Industriak, 26 eta 50 langile artean	112,00
4.5.- Industriak, 51 eta 100 langile artean	169,00
4.6.- Industriak, 101 eta 200 langile artean	243,00
4.7.- Industriak, 201 eta 350 langile artean	318,00
4.8.- Industriak, 351 eta 500 langile artean	411,00
4.9.- Industriak, 501 eta 750 langile artean	505,00
4.10.- Industriak, 751 eta 1000 langile artean	598,00
4.11.- Industriak, 1001 eta 1500 langile artean	748,00
4.12.- Industriak, 1501 eta 2000 langile artean	935,00
4.13.- Industriak, 2.000 baino langile gehiagorekin	1.122,00
5.- Aurreko epigrafeetan barne sartu EZ diren lokalak edo jarduera gabekoak	8,30
6.- Aparteko bolumena edo pisua duten aldiaren behineko isuriak, zerbitzua eman duenak jakinarazita (edukiontzi, tona edota horien baliokide den unitate bakoitzeko).	182,00

3.- Tarifen seinalaturiko kuotak ezin dira beheratu eta hiruhilabetekoak izango dira.

4.- Jarduera ekonomikorik egiten ez den lokalen kasuan, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren jarduera-epigrafearen araberrako tarifa ordainduko da, lokalaren erabileraren antzekoa.

VI. SORTZAPENA

7. Artikulua.-

1.- Zerbitzua eskaintzen hasten den momentutik sortzen da tasa hau, eta orduan jaiotzen da ordaintzeko obligazioa, eta ondorio horietarako, hasiera ematen zaiola ulertzen da, hori jasotzea obligaziozkoa dela kontuan izanik, etxeko zarama jasotzeko udal zerbitzua ezarria eta funtzionamenduan dagoenean, hain zuzen ere tasari atxikiak dauden zergadunek erabilitako etxebizitza eta lokalak kokatzen diren kale edo tokietan.

2.- Aipatu zerbitzua ezarri eta funtzionamenduan jarrita, kuotak hiru hilabete natural bakoitzeko lehenengo egunean sortuko dira, ez bada behintzat tasaren sortzapena aipatu dataren ondoren gertatuko, kasu horretan, lehenengo kuota hurrengo hiru hilabeteko lehenengo egunean sortuko da.

VII. AITORPENA ETA SARRERA

8. Artikulua.-

1.- Tasa lehenengo bider sortzen denean, subjektu pasiboek beren inskripzioa matrikula bidez formalizatuko dute, eta horretarako Uren Partzuergoan Altari dagokion aitorpena aurkeztuko dute, eta aldi berean lehenengo hiru hilabeteko kuota ordainduko dute.

2.- Jakiten denean, nahiz ofizioz nahiz interesatuek jakinarazita, matrikulan dagoen daturen bat aldatu egin dela, matrikula horretan egoki diren aldaketak sartuko dira, eta aldaketa horrek, aitorpena egin den data ondorengo kobrantza epearen ondoren izango ditu ondorioak.

3.- Kuoten kobrantza hiru hilabeteko egingo da, matrikulatik ondorioztatzen den errezibu bidez, eta hori Uren Partzuergoak egingo du.

VIII. HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK.

9. Artikulua.- Zergari buruzko hauste eta horien gaineko kalifikazioari dagokionez, hala nola horien gainean kasu bakoitzean jarri beharreko zehapenei buruz, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko Foru Arauean xedatua dagoena hartuko da kontutan

IX.- XEDAPEN GEHIGARRIA **ADMINISTRAZIOEN ARTEKO ELKARRERAGINGARRITASUNA**

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 28. artikuluan ezartzen duenez, dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak ez aurkezteko eskubidea dute interesdunek. Basauriko Udalaren zerbitzu/sail eskudunak elektronikoki kontsultatu edo bildu ahal izango ditu dokumentu horiek, datuen bitartekotza-plataformen edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuen bidez. Arrazoi teknikoak direla eta elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, izapideak egiteko behar diren dokumentuak aurkezteko eskatu ahal izango zaio interesdunari.

2. Zilegi da datu pertsonalen tratamendua egitea, interes publikoaren aldeko eginkizun bat betetzean edo Basauriko Udalari emandako botere publikoak gauzatzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan aurreikusitako baldintzetan. Datuak minimizatzeko printzipioarekin bat etorriz, datu egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurria mugatuak bakarrik eskatuko dira, datu horiek tratatzeko helburuen arabera (DBEO, 5.1.c artikulua).

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2008ko irailaren 25ean, 2011eko azaroaren 11ean, 2012eko azaroaren 19ean, 2017ko urriaren 26ean, 2018ko urriaren 25ean osoko bilkuran, 2019eko urriaren 30ean osoko bilkuran, 2020ko urriaren 29an osoko bilkuran, 2021eko Irailaren 30ean osoko bilkuran eta 2022ko urriaren 27an osoko bilkuran)